

Ordiziako Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hamaikako ekainaren 11ko 11:00k direnean. Behin-behineko Idazkariak jakinarazi du bilkura honen helburua Udala osatzea dela, Hauteskunde Orokorren 5/85 Lege Organikoaren 195.1 artikulua eta hark izan dituen aldaketek, eta orobat Tokiko Erakundeen Antolakuntzarako eta Funtzionamendurako Araudiaren 37.1 artikulua ezarritakoari jarraiki. Hauxe da, honenbestez, gai-zerrenda:

- Udalbatza Osatzea.
- Alkatea aukeratzea eta, hala badagokio, karguaz jabetzea.

Idazkari Andreak bilkurari hasiera eman ondoren, ekainaren 19ko Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko 5/1985 Lege Organikoaren –ondorengo zenbait Lege Organikok aldatu dutena– 195.2 artikulua ezarritako Adineko Mahaia eratu da. Hartara, hauexek dira Adineko Mahaiko kideak: Belen Maiza Urrestarazu, 61 urtekoa, adinez nagusia den kidea eta bertako lehendakaria; Eta Arantzazu Garin Garmendia andrea, kide gazteena; eta Ana Urkizu Kerejeta, Idazkaria, Udal Idazkaria dena.

Ondoren, zinegotzi hautetsien nortasuna bermatzen duten egiaztagiri guztiak irakurri ditu Lehendakariak. Mahaiko kideek egiaztatu dute bat datozela bere garaian Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak Udal honi bidali zizkion egiaztagiriekin eta aurkeztu dituzten nortasun agiriekin.

Zinegotzi hautetsiek banan-banan hartu dituzte beren zinegotzi-eserlekuak.

1. **Udalbatza Osatzea.** Jarraian, bilkura honetara Zinegotzi hautetsi guztiak bertaratu direnez, eta, beraz, legezko gehiengo absolutua betetzen denez, Adineko Mahaiko Lehendakariak adierazi du Mahaiko Idazkariak Zinegotzi Hautetsien agintza hartuko duela, legeak kargu eta funtzio publikoetarako ezartzen duen formula erabilita.

EAJ/PNVko zinegotzi hautetsiak, ondorengo jaun-andreak: Jose Miguel Santamaría Ezeiza, Judith Otegi López de Murillas, Arantzazu Garin Garmendia, Jose Ignacio Iturrioz Gotor, Bittor Iñaki Bolinaga Alzelai, jaun-andreek zin egin dute ondorengo esaldia erantzunez “legeak aginduta hitz ematen dut”.

BILDUko zinegotzi hautetsiak, ondorengo jaun-andreak: Igor Eguren Izagirre, Belén Maiza Urrestarazu, Izaro Intsausti Zinkunegi, Juan M^a.Guereñu Aldasoro, Iban Asenjo Garde, Edurne Gutierrez Jauregi, Imanol Iturriotz Lauzirika jaun-andreek zin egin dute ondorengo esaldia erantzunez “legeak aginduta hitz ematen dut”.

PSOEko zinegotzi hautetsia den Iñaki Dubreuil Churruca jaunak zin egin du ondorengo erantzunez “Bai, hitz ematen dut”.



Hartara, Mahaiko Lehendakariak osatuzat eman du Udalbatza, honako zinegotzi hauekin:

IGOR EGUREN IZAGIRRE
BELEN MAIZA URRESTARAZU
IZARO INTSAUSTI ZINKUNEGI
JUAN M^a.GUEREÑU ALDASORO
IBAN ASENJO GARDE
EDURNE GUTIERREZ JAUREGI
IMANOL ITURRIOTZ LAUZIRIKA
JOSE MIGUEL SANTAMARIA EZEIZA
JUDITH OTEGI LOPEZ DE MURILLAS
ARANTZAZU GARIN GARMENDIA
JOSE IGNACIO ITURRIOZ GOTOR
BITTOR IÑAKI BOLINAGA ALZELAI
IÑAKI DUBREUIL CHURRUCA

Alkatea aukeratzea

Idazkari Andreak bertaratukoei adierazi die, ekainaren 19ko Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko 5/1985 Lege Organikoaren –ondorengo zenbait Lege Organikok aldatu dutena– 196. artikulua ezarritakoari jarraiki, Udalbatza osatzen den bilkura berean Alkatea aukeratu behar dela, bertan xedatutako prozeduraren arabera. Hauxe da prozedura:

- Hautagaiak izan daitezke hala onartzen duten Zinegotzi zerrendaburu guztiak.
- Hautesleak dira bertan dauden Zinegotzi hautetsi guztiak.
- Hautaketa egingo da txartel sekretu baten bidez, eta bozketa bakar batean.
- Aukeratua izango da botoen legezko gehiengo absolutua lortzen duen hautagaia; beraz, 7 boto beharko dira gutxienez.
- Bozketa honetan ezein hautagaik ez badu gehiengo absolutua lortzen, automatikoki izendatuko da Alkate boto gehien lortu duen zerrendako burua den Zinegotzi hautetsia.

Alkate hautagaitzarako aurkeztu dira ondorengo zinegotzi hautetsiak:

- Igor Eguren Izagirre
- José Miguel Santamaría Eceiza.
- Iñaki Dubreuil Churruca

Idazkariak arrosa koloreko txartel bana eman dio hautesle bakoitzari, eta adierazi die bertan idatzi behar direla Alkate kargurako bozkatzeko duten Zinegotziaren izen-abizenak, eta ondoren, eman zaizkien gutun-azaletan sartu behar dituztela txartelak.



Behin txartel guztiak jasota, botoen zenbaketa egin da. Jarraian, Lehendakariak ozen irakurri ditu txartel bakoitzean Alkate kargurako proposatutako Zinegotziaren izen-abizenak. Hauexek izan dira bozketaren emaitzak:

- José Miguel Santamaría Eceiza jauna: 5 bozka.
- Igor Eguren Izagirre jauna: 7 bozka.
- Iñaki Dubreuil Churruca jauna Bozka 1.

Bozketa honen emaitza ikusita, eta BILDUKO hautagaiak legezko gehiengo absolutua lortu duela kontuan hartuta, IGOR EGUREN IZAGIRRE zinegotzi hautetsia izendatu da automatikoki Udal honetako Alkate.

Horren ostean, Igor Eguren Izagirre zinegotzi hautetsiak Udaleko Alkate kargua onartzen duela adierazi du, eta hauteskunde legeak ezarritako legezko formularen arabera agintza egin ondoren, kargua hartu du Udalbatzaren aurrean, honek ematen baitizkio legezko xedapenek egozten dizkieten eskumen, eskubide eta betebeharrak guztiak.



Azkenik, Alkate jaunak bukatutzat eman du bilkura hamaikak eta hogeita bost minutu direnean, eta, hain zuzen ere, bilkura honi dagokio nik, Idazkariak, egiaztatzen dudana akta hau.